

Ikastetxe pribatuek irakaskuntzan izan duten gastua %10,5 gehitu zen 2005-2007 denboraldian


Ikasle eta taldekako gastuak ere %10 inguru gehitu ziren

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuen gastu osoa 922 milioi eurokoa izan zen 2007. urtean; edo beste era batera esanda, 2005. urtearekin erkatuta gastu hori %10,5 gehitu zen.

2007ko ekitaldian, gastu arrunta (gastu osoaren %95,2koa) %12,4 gehitu zen; bestalde, inbertsioetarako gastua %16,9 murriztu zen. Gastu arrunt osoari dagokionez, irakaskuntzako gastua (guztirakoaren %90ekoa) %12,1 gehitu zen; zerbitzu osagarrien gastuak (batez ere jantokia eta garraioa) %13,6 gehitu ziren eta jarduera osagarriak %22.

Unibertsitate aurreko mailak dituzten zentroek egin zuten gastu handiena, %87,2; goi-mailako ikasketa zentroek %10eko gastua egin zuten eta irakaskuntza artistikoetarako zentroek %2,8koa. Aurreko biurtekoari dagokionez, unibertsitate aurreko mailetan ikasle kopurua mantendu zen eta gastua %10,7 gehitu zen; aitzitik, unibertsitate pribatuetan ikasle kopurua gutxitu zen (-%5,5) eta gastua %7 gehitu zen.

1. grafikoa. EAEko ikastetxe pribatuen irakaskuntzarako gastuaren bilakaera, ikasleen arabera (€)



Iturria: EUSTAT

ADIERAZLEAK

Aldi horretan, ikasle eta talde bakoitzeko gastuek antzeko joera izan zuten: antzeko gehikuntza izan zuten. Horrenbestez, aurreko biurtekoaren aldean, talde bakoitzeko ikasle kopurua mantendu egin zen. Zehazki, ikasle bakoitzeko gastua %10,1 gehitu zen eta talde bakoitzeko gastua %10,8.

2007. urtean, **eskola-unitate edo talde bakoitzeko irakaskuntzaren kostuak** 63.631 eta 78.020 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Erdi mailako irakaskuntzan kostu hauek izan ziren: 95.377 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), 92.809 euro Lanbide Heziketan (LH) eta 113.781 euro batxilergoan. Helduak hezteko unitatearen kostua (Helduen Hezkuntza) 42.177 eurokoa izan zen. Oro har, ratio txikienak ikastetxe erlijiosoenak izan ziren oraindik.

Ikasle bakoitzaren irakaskuntzarako kostuak 3.424 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan, 3.916 eurokoak lehen hezkuntzan, 4.853 eurokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 5.151 eurokoak batxilergoan eta 5.874 eurokoak Lanbide Heziketan. Unibertsitatean ikasle bakoitzeko gastua 5.458 eurokoa izan zen eta 1.651 eurokoa Irakaskuntza Artistikoetan.

FINANTZAKETA

Ikastetxe pribatuaren **sarrera osoa** 906 milioi eurokoa izan zen; horien %98,8 sarrera arruntetan eman zen eta %1,2 kapital sarreretan. Sarrera arruntaren %66 diru-laguntza publikoak izan ziren, %17,3 irakaskuntzako kuotak, %8,6 zerbitzu osagarrien kuotak eta %8,1 sarrera arruntaren gainerakoa.

Kuoten araberako sarrerari dagokionez, haur hezkuntzako lehenengo maila sisteman sartzeak kontzeptu horren gorakada eragin du; izan ere, kuoten araberako sarrera haur hezkuntzako sarrera osoaren %31ra heldu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuetan eskolako garraio eta jantokirako **ikasle bakoitzeko batez besteko kuotak** 548 eta 708 eurokoak izan ziren hurrenez hurren. Ikasle bakoitzeko irakaskuntzarako kuotak 544 eta 330 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan; 356 eurokoak DBHn, 582 eurokoak erdi mailako Lanbide Heziketan, 696 eurokoak goi mailako Lanbide Heziketan, 680 eurokoak Irakaskuntza Artistikoetan, 849 eurokoak batxilergoan eta 4.595 eurokoak unibertsitateko ikasketetan.

1. taula: Aldagai nagusien bilakaeraren laburpena

	1995	1997	1999	2001	2003	2005	2007	Δ (1) 2007/2005
Gutzizko gastua (mila €)	480.732	559.807	596.793	680.274	736.529	834.401	922.159	10,5
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	1.780	2.131	2.492	2.911	3.300	3.727	4.104	10,1
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	46.122	54.634	59.714	65.635	69.744	74.509	82.563	10,8

(1) Urteko tasa metatua

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe +34-945-01 75 01 Helb.elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: +34-945-01 75 47 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp